

IRAKASKUNTZA-GIDA

2026/27

Ikastegia

151 - Ekonomia eta Enpresa Fakultatea. Arabako Atala

Zikl.

Zehaztugabea

Plana

GADEMP10 - Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradua

Ikastaroa

4. maila

IRAKASGAIA

25852 - Gradu-amaierako lana

ECTS kredituak:

12

IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

Gradu Amaierako Lanean (GrAL), jatorrizko proiektu, memoria edo azterlan bat burutu behar du ikasle bakoitzak banakako jardunean, zuzendari baten edo gehiagoren gidaritzarekin. Lan horretan integratu eta garatuko dira Graduako ikaskuntza prozesuaren bitartean jasotako prestakuntza-edukiak, gaitasunak eta trebeziak.

GrALak ebaluagarria izan beharko du eta erakutsi egin beharko du Gradura aurkezten duenak badituela gutxieneko funtsezko gakoak etorkizunean profesional moduan garatzeko. GrALak ikerketa akademiko-profesional bat izan behar du, eta lan horretan, ikasle bakoitzak bere ezagutzak, sormen-dohainak eta originaltasuna erabili behar ditu; hortaz, benetako heldutasun proba bat da, lanean hasi aurretik.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

GrALean landu daitezken Graduako gaitasunak hurrengoak dira:

- Lortutako jakintzak enpresen administrazio eta zuzendaritzarekin zerikusirik duen edozein lan arlotan aplikatzea.
- Gai izatea lortutako datuetan oinarrituta iritzi arrazoituak emateko.
- Iturri desberdinak dituen informazioa bilatzea, identifikatzea, aztertzea eta laburtzea; enpresaren egoera eta hark izan dezakeen bilakaera baloratzeko gaitasun kritikoa izatea; arrazoitutako iritziak ematea eta ekonomia, enpresa, gizartea eta etikarekin zerikusia duten gai garrantzitsuei buruzko erabakiak hartzea.
- Adituari zein aditua ez denari erabakiak behar bezala hartzea erraztuko dizkioten txosten argiak eta koherenteak prestatzea, emititzea eta aurkeztea, bai enpresa barruko gai eta egoerei buruz zein beste enpresen eta merkatuen egoera jakinei buruz.
- Autonomia maila handia lortu ahal izateko ikasteko gaitasunak garatzea, bai ondorengo ikasketei ekin ahal izateko, bai etengabeko aldaketa eta berrikuntzen menpean dagoen arlo batean autoikaskuntzarako ahalmena izateko.
- Enpresa edo erakunde bat zuzentzea eta antolatzea, haren kokapen lehiakorra eta erakunde kokapena ulertuz eta haren sendotasunak eta ahultasunak identifikatuz.
- Enpresa edo erakunde baten edozein funtzio/arloetan integratzen jakitea eta enpresa barruan ematen zaion edozein gestio erraztasunez egitea, ingurune desberdinetan eta kultura anitzeko erakundeetan lan egiteko gaitasunak izanda.
- Eskura dauden baliabideak eraginkortasunez esleitzea, informazio eta komunikazio teknologiak ikasketetan eta inguru profesionalean erabiliz.
- Gai izatea idatziz nahiz ahoz erraztasunez komunikatzeko.
- Gai izatea talde lanean aritzeko, arduraz eta errespetuz, iniziatiba eta lidergoa erakutsiz.
- Gaitasuna izatea pentsamendu analitikorako eta hausnarketa kritikorako.
- Gai izatea sormena, berrikuntza eta jarrera ekintzailea garatzeko.
- Gai izatea atzerriko hizkuntza batean, batez ere ingelesez, frantsesez edo alemanez komunikatzeko.

GrALari lotutako ikaskuntzaren emaitzak hauek dira:

- Dokumentazioaren bilaketa eta antolaketa.
- Erabilitako dokumentazioaren funtsezko ideien sintesi eta abstrakzioa.
- Teoria eta arrazonamendu ekonomikoa arlo zehatz batean aplikatzea.
- Txosten bat idaztea, lanaren planteamendu, garapen eta ondorio nagusiak jasota.
- Lana modu egokian aurkeztea entzulegari.

EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK

Ikasleak proiektu bat garatuko du eta proiektu horretan erakutsiko ditu ikasketetan eta ezagutzen bereganatzean, arazoan eta lanen ebazpenean eta Graduari lotutako gaitasunen menperatzean izandako lorpenak; gainera, bere ikaskuntza-prozesuaren arduraduna izango da.

Tituluarekin lotutako gaitasun orokorrak aplikatzeari begira eta oro har, ikaslearen ikasketa arlokoak izango diren datu garrantzitsuak bilatu, kudeatu, antolatu eta interpretatzeari begira egingo da Gradu Amaierako Lana, ikasleak gizarteari, zientziari, teknologiari edo etikari loturiko gai garrantzitsuei buruzko gogoeta egin eta iritzia eman dezan, eta gogoeta eta iritzi horiek kritikoak, logikoak eta sortzaileak izan daitezen. GrALa enpirikoa, teorikoa edo praktikoa (profesionala) izan daiteke.

2023ko abenduaren 14ko Gobernu Kontseiluan onartua eta EHAAn 2024/10/4an argitaratutako Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatean gradu amaierako lana egin eta defendatzeari buruzko arautegiaren 4. artikuluko 3. atalaren arabera, gradu amaierako lan guztietan jasoko da egindako lanari buruzko gogoeta bat, printzipio eta balio demokratikoei eta Garapen Jasangarrirako Helburuei (GJH) jarraituz egina. Gogoeta horrek aztertuko du GRALak balio

horiekin eta GJHek osatzen duten lan esparruarekin duen lotura, eta/edo horiekiko ikuspegi kritikoak planteatzen dira.

Gogoetak 200 hitz izango ditu gutxienik, eta atal espezifiko bat izango da lan idatzian. 822/2021 EDn aipatzen diren erreferentziazko arauarekin batera, 2030 EHUagenda erabili ahal izango da gure unibertsitatearen erreferentziazko arau espezifiko gisa. Gainera, ikasleak lanaren erreferentziazko GJHak adieraziko ditu, Unibertsitateak edo Ikastegiak antolatuko dituen sistemen bidez.

METODOLOGIA

GrALaren metodologia ikasleak, zuzendariaren gidaritzapean, eginiko lan autonomoan oinarritzen da. Ikasleak parte hartu beharko du GrALa egiteari buruzko orientazio-mintegi batean. Irakasle-zuzendaria arduratuko da ikaslearen ikaskuntza-prozesurako laguntza emateaz, lana egiteko, idazteko eta ahoz aurkezteko gidaritza emanez, prestakuntza-jardueren edo tutoretzen bidez. Laburbilduz, metodologiaren ardatza ikaslea bera izango da, prestakuntza-sistemaren elementu gako gisa, eta irakasle-zuzendariak dinamizatzailerik eta ikaskuntza-prozesuaren bideratzaile gisa parte hartuko du.

Nolanahi ere, GrALa egiteak honako hau eskatzen dio ikasleari: a) gai garrantzitsuak eta interesgarriak identifikatzea, Graduaren arlo espezifiko baten ezagutza aurrera egiteko; b) planteatzen dituen galderei erantzuteko aurkeztu behar duen Gradu Amaierako Lan motari buruzko erabakiak hartzea; c) informazioa biltzea, aztertzea eta interpretatzea modu kritikoan; d) txostena idaztea zorroztasun akademikoarekin, eta e) ahoz defendatzea.

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak									
Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a									

Legenda: M: Magistrala S: Mintegia GA: Gelako p.
GL: Laborategiko p. GO: Ordenagailuko p. GCL: P. klinikoak
TA: Tailerra TI: Tailer Ind. GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Idatzizko dokumentua eta ahozko defentsa: % 100

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

GrALa idatziz egingo eta emango da, eta ahoz aurkeztu eta defendatu beharko da, lana idatzi den hizkuntzan. Dagokion epaimahaiak lana ebaluatuko du idatzitako txostenaren, zuzendariaren aldeko aurreko txostenaren eta lanaren azalpen eta defentsa publikoaren arabera.

Ohiko deialdiari uko egiteko, nahikoa izango da lanaren defentsara ez aurkeztea.

GrALa ebaluatzeko ardatz izango dira UPV/EHUren araudian xedatzen diren printzipioak: zuzentasun akademikoa, zintzotasuna eta jarrera etikoa. Ikasleak onartzen eta gogoratzen du unibertsitatean matrikula egin zuenean Zintzotasunez eta portaera etikoz jokatzeko konpromisoa adierazpena izenpetu zuela eta, haren bidez, hitzeman zuela plagiorik edo bestelako iruzur akademikorik ez zuela egingo, ezta ebaluazio probetan eta lanetan baimenduta ez dagoen objektu eta gailu teknologikorik erabiliko ere ez adimen artifizialeko tresnak barne, halakorik berariaz baimenduta ez dagoenean. Betebehar horiek urratzeak ondorio akademiko eta diziplinazkoak izan ditzake, unibertsitatean indarrean dagoen araudian xedatutakoaren arabera.

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

GrAL idatziz egingo eta emango da, eta ahoz aurkeztu eta defendatu beharko da, lana idatzi den hizkuntzan. Dagokion epaimahaiak lana ebaluatuko du idatzitako txostenaren, zuzendariaren aldeko aurreko txostenaren eta lanaren azalpen eta defentsa publikoaren arabera.

Ezohiko deialdiari uko egiteko, nahikoa izango da lanaren defentsara ez aurkeztea.

GrALa ebaluatzeko ardatz izango dira UPV/EHUren araudian xedatzen diren printzipioak: zuzentasun akademikoa, zintzotasuna eta jarrera etikoa. Ikasleak onartzen eta gogoratzen du unibertsitatean matrikula egin zuenean Zintzotasunez eta portaera etikoz jokatzeko konpromisoa adierazpena izenpetu zuela eta, haren bidez, hitzeman zuela plagiorik edo bestelako iruzur akademikorik ez zuela egingo, ezta ebaluazio probetan eta lanetan baimenduta ez dagoen objektu eta gailu teknologikorik erabiliko ere ez adimen artifizialeko tresnak barne, halakorik berariaz baimenduta ez dagoenean. Betebehar horiek urratzeak ondorio akademiko eta diziplinazkoak izan ditzake, unibertsitatean indarrean dagoen araudian xedatutakoaren arabera.

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

BIBLIOGRAFÍA

Oinarrizko bibliografia

Zuzendariarekin adoztu beharrekoa.

Gehiago sakontzeko bibliografia

A tratar con el director o directora.

Aldizkariak

Interneteko helbide interesgarriak

OHARRAK

Informazio gehiago Ikastegiko web orrian eskegitako "GRADU AMAIERAKO LANAREN GIDA: IKASLEAK ORIENTATZEKO GIDA ENPRESEN ADMINISTRAZIOAN ETA ZUZENDARITZAN GRADU AMAIERAKO LANA GARATZEKO" dokumentuan.